“Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU”

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA AGIRI HONEK ARAUTU BEHARKO DU “DIGURBE” PROIEKTUAN JASOTA DAGOEN AÑARBE ETA URUMEA IBAIEN ARROAN URAREN ZIKLOA ERABAT DIGITALIZATZEKO XEDEAREKIN PRESAN ETA BESTELAKO UR-HARTUNEETAN NEURTZE-EKIPOAK INSTALATZEKO KONTRATAZIOAREN LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ EGINGO DENA

“SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BARRUAN - EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA - NEXT GENERATION EU”

Donostia, 2024ko uztailaren 19a

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA. AGIRI HONEK ARAUTU BEHARKO DU "DIGURBE" PROIEKTUAN JASOTA DAGOEN AÑARBE ETA URUMEA IBAIEN ARROAN URAREN ZIKLOA ERABAT DIGITALIZATZEKO XEDEAREKIN PRESAN ETA BESTELAKO UR-HARTUNEETAN NEURTZE-EKIPOAK INSTALATZEKO KONTRATAZIOAREN LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ EGINGO DENA

"SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BARRUAN - EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUA - NEXT GENERATION EU"

SEEParen 5. osagaia, 1. inbertsioa

A-1.3.1. "Presan eta harguneetan neurtze-ekipoak instalatzea"

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA[1]

Prozedura honen objektua da Aguas del Añarbe - Añarbeko Urak SAren aldetik (AUSA) kontratista bat hautatzea Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetako **karatularen** (aurrerantzean, Karatula) 1. puntuan adierazitako hornidurak eta lanak egiteko.

Hornidura eta lan horiek egingo dira Agiri honen, bere Karatularen, Preskripzio Teknikoen Agiriaren eta kontratistaren proposamenaren arabera.

Kontratuaren zenbait atal modu independentean gauzatzea aurreikusiz gero —sortaka zatituta—, **Karatularen 1. puntuan** adierazten da kontratua zein sorta zehatzetan banatzen den; hala badagokio, lizitatzaile berak zenbat sortatan aurkez dezakeen eskaintza; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari zenbat sorta adjudika dakizkiokeen; eta kasuan-kasuan zer alderdi zehaztu daitezkeen.

Kontratu honen CPV kodeak **Karatularen 1. puntuan** adierazten dira.

Kontratuari dagokionez, nabarmendu beharra dago jarduketak "Europar Batasunaren funtsen bidez finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana"ren baitan daudela, hain zuzen ere, kokatzen da, 5. osagaiaren ("Itsasertza eta baliabide hidrikoak babestea") 1. inbertsioaren (C5.I1: «Arazketako, saneamenduko, efizientziako, aurrezpeneko, berrerabilerako eta azpiegituren segurtasuneko jarduketak gauzatzea —DSEAR plana—») esparruan.

[1] Agiri honetan "kontratua" idazten denean ulertu behar da, lote bakoitzari dagokion kontratuaz ari garela.

[2] Agiri honetan "kontratista" idazten denean ulertu behar da, lote bakoitzaren kontratistari buruz ari garela.

Horretarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Europan eta estatuan Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Suspertze Plana erregulatzen dituen araudian ezarritakoari jarraikiz, zehazki honako hauetan koka daitezkeen jarduketek:

- 1.a azpineurria, ura arazteko, saneatzeko eta berrerabiltzeko jarduketei buruzkoa.
- 1.b azpineurria, uraren erabileran efizientzia hobetzeko eta galerak murrizteko jarduketei buruzkoa.

Uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala denez uraren eta energiaren erabileran efizientzia sustatzeko modurik onena, zeren hobetu egiten baititu bai saneamendua, arazketa eta berrerabilera (1.a azpineurria) bai hornidurari lotutako efizientzia eta galeren murrizketa (1.b azpineurria), eta izanik digitalizazioa, hortaz, uraren hiri-zikloaren kudeaketaren efizientzia oro har hobetzeko zeharkako neurria, honako hau osatzen duena eta betetzen laguntzen duena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren diseinuaren arabera: 76. CID helburua, «Urak eta hondakin-ur hobetuak tratatzeko azpiegiturak» izenekoa, 91/271/EEE Zuzentaraua beteko dela bermatzeko eta energia-efizientziaren irizpideak betetzeko, edo ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratugilea Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA (AUSA) da (aurrerantzean, erakunde kontratugilea edo AUSA).

Kontratazio-organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazten da eta, hala badagokio, eta aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauei jarraikiz, egokitzat jotzen dituen pertsonak izendatu ditzake berariaz, kontratuarekin lotutako jarduketa jakin batzuk gauzatzeko.

3. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez adjudikatuko zaio lizitatzaileari, lote bakoitzean kalitate-prezio erlazio hoberena duen eskaintza aurkezten badu, Agiri honetan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera (aurrerantzean, eskaintza hoberena).

4. ALDAERAK

Lizitatzailek aldaerak aurkezteko aukera jakitera ematen da, hala badagokio, **Karatularen 3. puntuan**.

Aldaerak onartzen badira, **Karatularen 3. puntuan** adierazten dira haien gutxieneko eskakizunak, modalitateak eta ezaugarriak, baita haiek kontratuaren objektuarekin duten lotura ere.

5. KONTRATU-DOKUMENTAZIOA

Kontratu-izaera edukiko dute, adjudikazioaren ondoren egingo den kontratuak eta honako dokumentu hauek:

- Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta bere Karatulak.
- Preskripzio Teknikoen Agiriak.
- Adjudikaziodunak aurkezten duen eskaintzak[3].
- **Karatularen 4. puntuan** adierazten den beste edozein dokumentuk.

Adjudikaziodunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

Kontratazio publikoari buruzko arau orokorrez gain, Agiri hau Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-printzipio espezifikoei loturik dago. Printzipio horiek honako hauek dira:

- Mugarriaren eta helburuaren kontzeptua, eta horien jarraipena egiteko eta emaitza egiaztatzeko irizpideak.
- Etiketatze berdea eta etiketatze digitala.
- Ingurumenaren gaineko inpaktu negatibo nabarmenak (*Do no significat harm*, DNSH) eragiteko arriskuaren azterketa, jarraipena eta hasierako ebaluazioaren gaineko emaitzaren egiaztapena.
- Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoa indartzea.
- Estatu-laguntzen araubidearen bateragarritasuna eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.
- Funtsen azken hartzailearen identifikazioa, dela laguntzen onuraduna, dela kontratu baten adjudikazioduna edo azpikontratista.
- Komunikazioa.

6. KONTRATUAREN EPEA ETA ONDASUNAK ENTREGATZEKO LEKUA

Kontratuaren iraupen-epea eta ondasunak entregatzeko lekua **Karatularen 5. puntuan** adierazten da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

[3] Agiri honetan "adjudikatzailea" idazten denean ulertu behar da, lote bakoitzari dagokion adjudikatzaileaz ari garela.

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** adierazten da.

Bestalde, kontratuaren prezioa ere **Karatularen 6.1 puntuan** zehazten da.

Kontratuaren prezio horrek bilduko ditu kontratua betearazteko behar diren kostu guztiak; besteak beste —informazio gisa soilik eta ez modu mugatzailean—, honako hauek:

- Kontratua betearazteko behar diren zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian aurreikusitakoaren arabera. Ez da a posteriori onartuko aldez aurretik azken prezioan barne hartu beharko liratekeen kontzeptuen ondoriozko fakturaziorik.

- Kontratua betearazteak berezko dituen kontzeptu guztiak eta hura betearazteko baliatutako langileei dagozkien gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gauez eta jaiegunetan egiten diren lanak, langileen bajak edo gaixotasunak direla-eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, eta abar), baita zergak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, baimenak eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

- Horniduraren xede diren ondasunak entregatu, lekualdatu eta entrega lekura garraiatzeko gastuak.

- Dauden ekipoak desmuntatzeko eta jabetzak adierazitako gunera garraiatzeko gastuak.

- Produktuaren kontrol- eta kalitate-proba beharrezkoei lotutako edozein gastu.

- Kontratua betearazteko kontratistak erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna, ekipo informatiko eta aparatu guztiak.

- **Karatularen 6.1 puntuan** zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitakoa da, lege honen 101. artikuluan ezarritako ondorioetarako: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL).

Balio zenbatetsi hori kalkulatzeko SPKLren 101. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio. Aurreikuspen horrek ez du konpromiso jakinik sortzen erakunde kontratugilearentzat.

7.3. FINANTZAKETA

Kontratu hau partzialki (% 56) finantzatzen du Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak. COVID-19aren krisiaren ondoren suspertzen laguntzeko Europar Batasuneko Suspertze Tresna ezartzen duen Europako Kontseiluaren abenduaren 14ko 2020/2094 (EB) Erregelamenduak ezartzen du eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak arautzen du mekanismo hori.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Karatularen 7. puntuan adierazitako eran ordainduko du erakunde kontratugileak prezioa.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratuko dira:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- Kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.
- Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.
- SPKLren 63. artikuluan adierazitako gainerako informazioa.

Erakunde kontratugileak, profil horretara sartzeko, honako web orri honetara jo beharko du: http://www.contratacion.euskadi.eus.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Lote bakoitzerako eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzailea behartuta egongo da behin betiko berme bat eratzera **Karatularen 9. puntuan** adierazitako zenbatekoaz.

Eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak egiaztatu beharko du adierazitako behin betiko bermea eratu izana 10 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Aipatutako behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea eratu ahal izango da SPKLren 108. artikuluan jasotako moduetako batean; eta ez da beharrezkoa izango hura Gordailuen Kutxa Orokorrean eratzea.

Abal moduan ezarriz gero, Agiri honi **I. eranskin** gisa gehitutako ereduaren araberakoa egingo da.

Bermea eratu izana bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Bermearen gainean kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, enpresa kontratistak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun naturaleko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea berregokitu egin beharko du, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea egokitzeko, aldaketa-erabakia jakinarazten den datatik aurrera.

Bermea SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme-epea igaro ondoren eta kontratistak kontratu-betebehar guztiak bete dituenean.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txostena eman beharko du aurretiaz.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko inolako debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten pertsona naturalek edo juridikoek, espainiarrek edo atzerrikoek, kontratatu ahal izango dute erakunde kontratugilearekin.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren objektua osatzen duten prestazioak egiteko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoek kontratuaren adjudikaziodun izateko aukera izango dute, soilik baldin eta kontratuko prestazioak haiei berez dagozkien helburu, xede edo jarduera-esparrukoak direnean, haien estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Erakunde kontratugilearekin kontratatzeko gaitasuna edukiko dute, nolanahi ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez-espainolek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmena sinatu duten estatuetakoek, betiere

dagokien estatuko legeriaren arabera, kasuan kasu zerbitzua egiteko gaikuntza badute. Kasu horretan, SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko prestazioa egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Alde batera utzi gabe Espainiaren betebeharrak nazioarteko hitzarmenen ondorioz, Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu ez duten estatuetakoak ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek txosten bidez egiaztatu beharko dute, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, era berean, Espainiako enpresen partaidetza kontratazioan, SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko erakundea parekagarriekin, funtsean antzekoa izango den moduan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari erantsiko zaio.

Erakunde kontratugilearekin kontratuak egin ditzakete xede horrekin aldi baterako sortzen diren enpresaburuen elkarteek, eta ez dute eskritura publikorik formalizatu beharko kontratuaren adjudikazioa haien alde lortu arte. Edonola ere, SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Lizitatzaileek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte **Karatularen 10. puntuan** ezarritako kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen profesional edo teknikoari dagokienez.

Hala badagokio, lizitatzaileek **Karatularen 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo bitarteko materialak atxiki beharko dituzte, gutxienik, kontratua betearazteko.

Gainera, hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazten diren eskakizun espezifikoak bete beharko dituzte lizitatzaileek.

Lizitatzaileei kontratua betearazteko giza baliabide eta/edo bitarteko material jakin batzuk atxikitzeko konpromisoa eskatzen bazaie, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebehartzat joko da SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, hortaz, betebehar hori ez betetzea kontratua erakunde kontratugilearen borondatez suntsiarazteko kausa izango da.

Kontratua ez suntsiarazteko hautabide gisa, kontratistak kontratua betearazteko atxikitako pertsona bere kabuz aldatuko balu (nahiz langile propioa nahiz azpikontratatua izan), erakunde kontratugileak hitzemanda dagoen pertsona berehala atxikitzea exijitu ahal izango du, edota, hautabidez, kontratistarekin zerikusirik ez duen ezintasunagatik, pertsona hori prestakuntza eta esperientzia bereko beste giza baliabide batzuekin ordeztu. Pertsona horrek erakunde kontratugilearen berariazko adostasuna izan beharko du.

Exijitutako kaudimena eta/edo exijitutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu ahal izango dira, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa dena

dela ere, baldin eta kontratua edo kontratuak indarrean dauden bitartean kaudimen eta/edo bitarteko horiek benetan izango dituztela frogatzen badute eta oinarri hartzen duten erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa duten lizitatzaileek hala adierazi beharko dute 1. gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki EKABaren II. zatiko C atalean).

Gainera, lote bateko eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa badu, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du (**II. eranskineko** ereduaren arabera egina), behar diren baliabideak erabilgarri izango dituela frogatzeko.

Konpromiso hori notarioaren aurrean sinatuta aurkeztu beharko du/dute loter baterako eskaintza hoberena aurkezten duen lizitatzaileak oinarri hartzen duen/dituen erakundeak/erakundeek, eskatutako kaudimena eta/edo bitartekoak atxikitzeko eskatutako konpromisoa egiaztatzeko. Adieraziko du/dute eskaintzaileak parte hartu behar duen lizitazioaren baldintzak beren hedadura osoan ezagutzen dituela/dituztela eta horren ziurtagiri bat aurkeztuko du/dute (17. klausulan jasotako moduan). Gainera, lizitatzaile horren esku, adjudikaziodun gertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren baliabide guztiak jartzeko borondate atzeraezina agertu behar du/dute (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta; erakunde kontratugileak berariaz baimendu behar du haiek ordezkatzea edo aldatzea). Idazki hori aurkeztearen ondorioa izango da erakunde kontratugileak konpromiso hori onartzen duela, baldin eta lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen bada.

Konpromiso hori aurkeztuko du lote baterako eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak 10 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak —klausula honetan jasotakoak— bete egin beharko dira eskaintzak aurkezteko azken datan eta iraun beharko dute kontratua burutzeko unean eta kontratuak irauten duen bitartean.

Edozein kasutan, Kontratazio Organoak eska liezaieke lizitatzaileei, adjudikazioa egin aurretik edozein unetan, 17. Klausulan adierazten den dokumentazioa aurkez dezatela.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri egongo dira lizitazio iragarkia argitaratzeko egunetik eta erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean proposamenak aurkezteko epe osoan.

13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak betez.

13.3. FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenek Agiri honen eta bere Karatularen, Preskripzio Teknikoen Agiriaren eta gainerako kontratu-dokumentazioaren araberakoak izan beharko dute; eta haiek aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea haien klausula guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Fitxategi elektroniko bakoitzak ondoren adieraziko diren dokumentuak edukiko ditu eta bertan sartutako dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

Nahiz fitxategi elektronikoak izan, 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala izena jarriko zaie.

1. gutun-azala. "AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (aurrerantzean, EKAB) formularioaren araberakoa. Agiri honi **III. eranskin** gisa gehitzen zaio eta jarraian adierazten denaren arabera beteko da:

   - Europako kontratazio-agiri bakarraren (EKAB) formulario normalizatua ezartzen duen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako jarraibideen arabera bete beharko da EKABa.

   - EKABaren "IV. zatia: Hautatzeko irizpideak" atal zehatzari dagokionez, lizitatzaileek soilik α atala bete behar dute: "Hautatzeko irizpide guztiei dagokien adierazpen globala".

   - Lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo bitartekoetara jotzen badu (Agiri honen 12. klausularen arabera), erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du. Horretan jasoko da EKABaren II. zatiko A atalean ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B atalean

("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa"), eta III. zatian eskatzen den informazioa.

- Zenbait enpresaburu aldi baterako enpresa-elkarte batean bildurik aurkezten diren kasu guztietan, parte hartzen duen enpresa bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da. Adierazpen horretan jasoko da EKABaren II.etik V.era arteko zatietan eskatzen den informazioa.

2. **Karatularen 10. atala**ren arabera kontratua betearazteko lizitatzaileei gutxieneko giza baliabide eta bitarteko materialak eskatzen zaizkien kasurako, lizitatzaileek aurkeztu beharko dute kontratua betearazteko gutxieneko giza baliabide eta bitarteko materialak zein izango diren jasotzen duen konpromisoa, Agiri honi atxikitzen zaion **IV. eranskinaren** arabera.

3. Interes-gatazkarik ez izatearen adierazpena (IGEIA), Karatularen I. eranskin espezifikoan ezarritako ereduaren arabera.

4. Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH) betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Karatularen V. eranskin espezifikoan ezarritako ereduaren arabera.

5. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartea eratzen edo eratuko dutenen izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Gainera, kontratua adjudikatzen bazaie, orobat adierazi beharko dute aldi baterako elkarte bat formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela. Aldi baterako elkarte batean bilduta lehiatu nahi duten enpresaburuek betebehar solidarioa hartuko dute, eta enpresaburuen elkartearen izenean ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko besteko ahalordeak izango dituena kontratua amaitu arte. Hala ere, enpresek, kopuru handiak kobratu eta ordaintzeko, ahalorde mankomunatuak eman ahalko dituzte.

6. Atzerriko enpresek berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

OHARRA:

Erakunde kontratugileak lizitatzaileei eskatu ahal izango die ziurtagiri guztiak edo horietako batzuk aurkez ditzaten, baldin eta uste badute arrazoizko zalantzak daudela 1. puntuan adierazitako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruz, edota hori beharrezkoa denean prozedura egoki garatzeko.

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu baten datu-base nazional batean ageri denean —esate baterako, enpresaren espediente birtual batean, dokumentuen biltegiratze elektronikorako sistema batean edo aurre-kalifikaziorako sistema batean—, eta horiek organo horietarako doan eskuragarri daudenean, enpresaburuak ez du izango aipatutako tokietan inskribatutako datuei buruzko egiaztagiririk edo dokumentu-frogarik aurkezteko betebeharrik.

2. gutun-azala. "BALIO-IRITZI BATEN ARABERA KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek **Karatularen 11.2 puntuan** adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun-azal honetan.

Lizitatzaileak kontu berezia izan beharko du gutun-azal honetan sartu beharreko dokumentazioa prestatzeko garaian; izan ere, edukiari buruz emandako jarraibideak bete beharko ditu. Era berean, ezin izango da aipamenik egin 3. Gutun-azalean jaso behar den alderdi ekonomikoen inguruan.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi eta prozeduratik baztertuko dira.

Erakunde kontratugileak, era berean, eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarri guztia eskatzeko.

Karatularen 12. Puntuak dioenaren arabera, kontratua burutzeko atxikituko diren giza baliabideak baloratzen diren kasuan, kontratistak bere kabuz langile horiek aldatzen baditu (nahiz langile propioak nahiz azpikontratatuak), erakunde kontratugileak exijitu dezake konprometitutako langileak atxikitzea edo, bestela, hori ezinezkoa balitz, prestakuntza eta esperientzia berdina duten beste langile batzuk berehala atxiki ditzala. Langile horiek erakunde kontratugilearen oniritzia eduki beharko dute.

3. gutun-azala. "FORMULAK ERABILIZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, Agiri honi **V. eranskin** gisa atxikitako ereduaren arabera.

Erakunde kontratugileak, adjudikazioa egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, 1., 2. eta 3. gutun-azaletan aurkeztutako dokumentuen edukiaren egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du. Enpresak aurkeztutako datuetan eta inguruabarretan faltsutasunik aurkitzen bada, horrek kontratua baliogabetzea ekar dezake, kontratistari egotz dakiokeen ez betetzearen ondorioz.

14. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Adjudikazio-irizpideak, dagokien haztapenaz adierazita, **Karatularen 12. puntuan** jasotakoak izango dira.

15. EBALUAZIO-BATZORDEA

Kontratazio-organoak **Karatularen 13. puntuan** adierazten diren kideak izango dituen ebaluazio-batzordearen laguntza izango du.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio-batzordeak aurretiaz kalifikatuko du 1. gutun-azalean jasotako dokumentazioa ("Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa"), garaiz eta forman aurkeztua. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak hautemanez gero, erakunde kontratugileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari haiek zuzentzeko.

1. gutun-azala gehienez hogei egun naturaleko epean irekiko da, dokumentazioa aurkezteko epea amaitzen den datatik aurrera.

SEEPetik datozen funtsekin finantzatutako kontratua denez, eskaintzak baloratu aurretik, kontratazio-organoak egoitza Zerga Administrazioko Estatu Agentzian (AEAT) duen **MINERVA** tresna informatikoaren bitartez hasiko du interes-gatazkaren arriskua "ex ante" analizatzeko prozesua. Horretarako, pertsona fisiko edo juridiko lizitatzaileen eta eragiketaren erabakitzaileen datuak sartuko ditu (pertsona bakarreko kontratazio-organoaren eginkizunak betetzen dituzten pertsonak edo kide anitzeko kontratazio-organoko kideak), baita kontratazio-organoari laguntzeko kide anitzeko organoko kideenak ere, baldin eta kontratazio-prozeduretan parte hartzen badute eskaintzak baloratzeko, adjudikazio-proposamena egiteko eta kontratua adjudikatzeko faseetan (kontratazio-mahaia, adituen batzordea eta batzorde teknikoak). HFP/55/2023 Aginduan ezarritakoari jarraikiz tramitatuko da prozedura.

AEATek ez badauka kontsultatutako enpresaren benetako titularrei buruzko informaziorik, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki analizatzeari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan araututako prozedurari jarraituko zaio. Aipatutako artikuluan jasotakoari jarraikiz, kasu horietan prozeduretan parte hartzen dutenei eskatuko zaie benetako titulartasunaren informazioa. Informazio hori kontratazio-organoari eman beharko zaio bost egun balioduneko epean, informazio-eskabidea formulatzen denetik aurrera. Informazio hori adierazitako epean ez entregatzea parte hartzen ari den prozeduratik **baztertzeko** arrazoia izango da.

Jarraian, 2. gutun-azala ("Balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko.

Balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren irizpideei formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino haztapen handiagoa emanez gero, **Karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatutako batzorde bati egokituko zaio balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren irizpideak baloratzea.

2. gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun-azala ("Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da.

3. gutun-azala ("Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ireki aurretik, balio-iritzi baten arabera kuantifikatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie lizitatzaileei.

Hori egin ondoren, 3. gutun-azalean ("Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") jasotako dokumentazioa irekiko da, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez, haiek aztertu eta baloratzeko.

Ebaluazio-batzordeak baztertu egingo ditu 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako kausaren batean sartuta dauden proposamenak, eta kontratazio-organoari helaraziko dio aurkeztutako proposamenen zerrenda, beheranzko hurrenkeran sailkatuta —**Karatularen 12. puntuan** ezarritako adjudikazio-irizpideak kontuan harturik—, eta lote bakoitzeko eskaintza hoberena identifikatuko du.

Lizitatzaileren baten kanporatzea erabaki ezkero, erakunde kontratugileak espresuki jakinaraziko dio lizitatzaileari kanporatua izan dela.

Proposamena egin aurretik, bidezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Lote bakoitzean puntuazio hoberena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegitzat jotzen bada, hala badagokio, **Karatularen 12. puntuan** adierazitako parametroen arabera, ebaluazio-batzordeak SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Adjudikazio-proposamenak ez dio eskubiderik ematen proposatutako lizitatzaileari erakunde kontratugilearen aurrean. Dena den, Kontratazio Organoak ez badu adjudikatzen kontratua proposamena jarraituz, bere erabakia arrazoitu beharko du.

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Adjudikaziorako hautatutako lizitatzailea aukeratzeko, kontratazio-organoa bat etorriko da, oro har, ebaluazio-batzordeak egindako proposamenarekin. Bestela,

kontratazio-organoak proposamenetik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko sailkatuko ditu.

Kontratazio-organoak ebaluazio-batzordeak egindako proposamena onartu ondoren, erakunde kontratugileak errekerimendua egingo dio lote bakoitzean proposamen hoberena egin duen lizitatzaileari, hamar egun baliodunen barruan, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, honako dokumentazio hau aurkez dezan:

1. Eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko datan, honako eskakizun hauek betetzearen egiaztagiriak: erakunde kontratugilearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak eta Agiri honen 12. klausulan eskatutako gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ez izateari buruzko baldintza guztiak, jarraian adierazten den eran.

   Proposamena aldi baterako elkarte batean sartuta parte hartu nahi duten enpresaburuek aurkeztu badute, aipatutako dokumentazioak elkartea osatu behar duten enpresa guztiena izan behar du.

   (i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasunari eta jarduteko gaitasunari buruzko egiaztagiriak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: eratzearen eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio-egintza, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituztenak, dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuak, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

   - Europar Batasuneko estatuetako enpresaburu ez-espainiarren jarduteko gaitasuna frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.
   - Gainerako enpresaburu atzerritarren kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen ordezkaritza diplomatiko iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko bulego kontsularraren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

   - Pertsona fisikoak diren enpresaburuen kasuan, nortasun agiri nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.

- Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek nortasun agiri nazionalaren kopia eta horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dute. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da ahalordea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu, edota, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan aurreikusitakoak eskatzen badu —dagokion pertsona juridiko motaren arabera—.

Dokumentu horien guztien jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak aurkeztuko dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako indarreko inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkez dezakete, (i) atal honetan aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, zeinaren arabera adieraziko baita dokumentuan islatutako inguruabarrak ez direla aldatu.

Lizitatzailea batek **eskaintzarik hoberena aurkezten badu lote bat baino gehiagotan**, atal honetan eskatzen den dokumentazioa behin bakarrik aurkez dezake, ez ditu kopiak aurkeztu beharko adjudikatu zaizkion beste loteetan.

(ii) Agiri honen 12. klausulan eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta kaudimen tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da:

  - Onartutako urteko kontuak, Merkataritza Erregistroan gordailutuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailutuak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek, berriz, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute beren urteko bolumen-negozioa.

  - Dagokion lotearen negozio-bolumena adierazten duen lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Hala badagokio, eskatutako kaudimen egiaztatuko da, lote bakoitzeko, azken hiru urteetan egindako horniduren edo lanen zerrenda baten bidez. Zerrenda horretan agertuko dira horniduren zenbatekoa, data eta hartzaile

publiko edo pribatua. Egindako hornidura horiek organo eskudunak jaulki edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean edo, hartzailea subjektu pribatua bada, horrek jaulkitako ziurtagiri baten bitartez, edo, ziurtagiririk ezean, lizitatzailearen adierazpenaren bidez, erantsirik horren esku dauden dokumentuak, prestazioa egin izana ziurtatuko dutenak.

- Sailkapena. 4. Loteari dagokionez, exijitzen den sailkapena egiaztatuko da eskumena duen organo batek egindako ziurtagiriaren bidez, eta ziurtagiria indarrean dagoela eta bertan jasotzen diren inguruabarrak ez direla aldatu egiaztatzen duen lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera. Lizitatzaileak adierazpena errepikatuko du lizitazioa adjudikatzen bazaio.

  Ziurtagiriak egiaztatuko du lizitatzailea sailkatua dagoela eskatzen den taldean eta azpitaldean, adierazitako kategoria berdinean edo altuagoan.

  Ziurtagiri horrek egiaztatu ahal izango du Klausula honetako 1 (ii) atalean aipatzen diren inguruabarrak, hau da, lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna eta, kasua balitz, bere ordezkaritza.

(iii) Lizitatzaileak SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako bat ere ez izatearen erantzukizunpeko adierazpena, Agiri honi **VI. eranskin** gisa gehitutako ereduaren araberakoa.

(iv) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen egiaztagiriak.

(v) Hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** zehazten diren eskakizun espezifikoak betetzearen egiaztagiriak.

(vi) SEEParen jarduketak egikaritzearen inguruko konpromisoaren adierazpena, Karatularen II. eranskin espezifikoan ezarritako ereduaren arabera.

(vii) SEEParen jarduketak egikaritzearen inguruko datuen lagapen eta tratamenduaren adierazpena, Karatularen III. eranskin espezifikoan ezarritako ereduaren arabera.

(viii) SEEParen funtsen azken onuradunaren titular errealari buruzko informazioaren erantzukizunpeko adierazpena, Karatularen IV. eranskin espezifikoan ezarritako ereduaren arabera.

2. Hala badagokio, enpresak kontratuari atxikitzeko hitzemandako giza baliabideak eta bitarteko materialak benetan izatearen egiaztagiriak.

   - Hala badagokio, kontratua betearazteari atxikitzeko hitzemandako giza baliabideei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

     - Kontratua betearazteko atxikitako talde osoaren identifikazio nominala, curriculum vitaeari dagozkion fitxekin batera. Horietan egiaztatuko da ezarritako eskakizunak betetzen direla:

       1. Titulazio akademiko ofiziala.

       2. Dagokion esparruko esperientzia.

       3. Hala badagokio, erakunde kontratugileak eskatzen duen beste edozein alderdi.

     - Adierazitako giza baliabide guztiak benetan erabilgarri izatearen egiaztagiriak.

     Datu pertsonalak babestearen arloan aplikatzekoa den Estatuko eta Europar Batasuneko araudian jasotakoaren arabera, eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hau jasoarazten da: (i) informazio hori bildu eta erabiltzeak berekin ekarriko du datu pertsonalak tratatzea lizitatzailearen aldetik, tratamenduaren erantzule gisa; eta (ii) informazioa erakunde kontratugileari entregatzeak, klausula honetan jasotakoa betetzeko, berekin ekarriko du lizitatzaile horrek datu pertsonalak jakinaraztea, lagatzaile gisa.

     Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak bete egin beharko ditu datu pertsonalak babestearen arloan aplikatzekoa den Estatuko eta Europar Batasuneko araudian xedatutakoaren ondorioz hari dagozkion betebeharrak, aurreko paragrafoan aipatutako datuak tratatu eta lagatzeari dagokionez. Zehazki, eta tratamenduaren arduradun den aldetik dagozkion bestelako betebeharrak ezertan galarazi gabe, hautatutako lizitatzaileak soil-soilik bere erantzukizunpean bermatu beharko du arestian adierazitako datu pertsonalen komunikazioa. Alderdi hori behar bezala egiaztatu beharko du erakunde kontratugilearen aurrean, horretarako errekerimendua egiten zaion guztietan.

   - Hala badagokio, kontratua betearazteari atxikitzeko hitzemandako bitarteko materialei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua betearazteko atxikitako bitarteko materialen identifikazioa, ezarritako eskakizunak betetzearen egiaztagiriekin batera.

- Adierazitako bitarteko material guztiak benetan erabilgarri izatearen egiaztagiriak.

Erakunde kontratugileak eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarri guztia eskatzeko.

3. Agiri honen 11. klausulan aurreikusitako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario-akta, baldin eta lizitatzaileak, exijitutako kaudimena eta/edo exijitutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa badu, **II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratu izanaren egiaztagiria. Aldi baterako enpresa-elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta nahikoa ahalorde izango du kontratutik eratorritako eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko, harik eta kontratua azkentzen den arte.

Erakunde kontratugileak eskubidea du lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarri guztia eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak hautemanez gero, erakunde kontratugileak hiru egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari haiek zuzentzeko.

Dokumentazio-errekerimendua adierazitako epean egoki betetzen ez bada edo aurkeztutako dokumentazioak zuzendu ezin diren akatsak edo omisioak baditu, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela, eta, hala badagokio, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio (BEZa kanpo), zigor moduan. Halakoetan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, lote bakoitzean eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

Kontratazio-organoak adierazitako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatuko du lote bakoitzari dagokion kontratua, luzeen jota ere bi hilabeteko epean, proposamenen gutun-azalak irekitzen direnetik aurrera.

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoituan jasoko du adjudikazio-erabakia, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko die, Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bidez. Erabaki hori erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua bere formalizazioaren bidez burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Dokumentu horrek zehatz-mehatz beteko ditu lizitazioaren baldintzak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezin izango da inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea eragingo duen klausularik.

Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Kontratua ezin izango da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasi eta 10 egun natural igaro baino lehen, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 58. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Kontratuen formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, hamabost egun naturaleko epea baino lehen argitaratuko da, kontratua burutu ondoren, erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean.

Adjudikaziodunari egoztekoak zaizkion arrazoiak tarteko, kontratua ez bada formalizatu aipatutako epearen barruan eskatuko zaio, kasua balitz, zigor moduan lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 (BEZa kanpo); zenbateko hori, lehenbizi, behin-behineko bermearekin ordainduko da, SPKLren 71. artikuluaren 2) apartatuko b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, lote bakoitzean eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz, Agiri honen 17. klausulan exijitutako dokumentazioa aurkeztu ondoren. Lizitatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduraduna izendatuko du. Arduradun horrek, erakunde kontratugileak esleitu dizkion ahalmenen barruan, kontratua nola egikaritzen den gainbegiratuko du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratugileari lotua edo harekiko loturarik gabea.

Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUA BETEARAZTEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera betearaziko da:

a) Kontratistak kontratuaren termino eta baldintzen arabera betearaziko du kontratua, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan eta horren Karatulan, Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoari jarraikiz, eta erakunde kontratugileak, haren interpretazioan, kontratistari ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz.

b) Kontratuak indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta konbentzio-xedapenak bete behar ditu, baldin eta lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

Honen harira, 2. Gutun-azalean (Balio-judizioaren bidez kuantifikatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa) adieraziko dute lizitatzaileek, kontratuaren esleipendunak izan ezkero kontratuaren xedea gauzatuko duten langileei aplikatuko zaien lan-hitzarmena. Lan-hitzarmenari buruz ematen den informazioa adjudikazio-ebazpenean jasoko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Aldi berean, kontratista behartuta egongo da behin kontratua adjudikatu zaionean, nolakoak diren langileek dituzten lan-baldintzak.

Kontratuak irauten duen bitartean langileei ordaindu beharko zaie aplikagarri zaien lan-hitzarmenean zehazten den ordainsaria, langileak duen kategoria profesionalaren araberakoa izango dena, ez da inoiz izango baxuagoa.

Atal honetan xedatzen denak baldintza bereziaren izaera du eta derrigorrezkoa da SPKLaren 211.1f) atalean aurreikusten denerako. Beraz, edozein ez betetzeak kontratuaren baliogabetzea eragingo du, erakunde kontratugileak horrela nahi izanez gero.

c) Kontratistak arriskua eta mentura bere gain hartuta betearaziko da kontratua.

d) Horniduraren xede diren ondasunak fabrikatu, enbalatu, garraiatu, entregatu eta dagokien tokian deskargatu, instalatu (galdaragintza, indar- eta kontrol-maniobra elektrikoak, eta abar) eta abian jartzeko gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira.

e) Kontratistak ez du izango kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik AUSAri entregatu aurretik horniduraren xede diren ondasunetan izandako galeren, matxuren edo kalteen ondorioz.

f) Erakunde kontratugileak kontratu-betebeharrak zuzen betetzen direla eta kontratua egoki betearazten dela kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Horretarako, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen dituen kanpo-laguntzak eskatu ahal izango ditu, kontratu-betebeharrak behar bezala betetzen direla eta lanak kalitate-maila egokiarekin egiten direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

Kontratistak kontratuaren xede den prestazioarekin zerikusia duten datu guztiak emango dizkio erakunde kontratugileari, eta behar den laguntza guztia emango du, kostu gehigarririk gabe, baita kontratatutako hornidurarekin zerikusia duen laneko dokumentazioa, administratiboa edo bestelakoa eskuratzeko aukera eman ere.

Kontratistak ezin izango du oztoporik jarri erakunde kontratugileak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanetan.

Hala eta guztiz ere, erakunde kontratugileak edozein ez-betetze edo eragozpen hautematen badu, zuzenean jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, haren esku egongo baitira, azken batean, hornidura egiten duten langileak antolatzeko, gainbegiratzeko edo, hala badagokio, zehatzeko ahalmenak.

g) Langile guztiak soilik kontratistaren mende egongo dira. Hark izango ditu enpresaburu-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak, eta erakunde kontratatzaileari ezin izango zaio inolako erreklamaziorik egin lan-harreman horien edo gainerako betebeharren ondorioz.

Kontratista izango da arduradun bakarra kontratua betearazten diharduten langileekin —langile propioak edo egin litezkeen azpikontratazioetakoak— edozein ezbehar edo erreklamazio izanez gero (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratugileak ez du bere gain hartuko kontratistak zuzenean nahiz zeharka hartzen duen inolako lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzkoa barne), Gizarte Segurantzakorik edo zerga-arlokorik. Era berean, kontratistak bere gain hartuko ditu, soil-soilik, kontratua betearazteak sortutako ezbeharren ondorio izan litezkeen erantzukizunak.

h) Kontratistak bete beharko ditu datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako, abenduaren 5eko, 3/2018 Lege Organikoa eta datu pertsonalen babesari buruzko beste edozein estatuko eta Europar Batasuneko arautan aurreikusitakoaren ondoriozko betebeharrak, baldin eta aplikagarria bada kontratua indarrean dagoen bitartean, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta bere erabakiz egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik, bera baita tratamendu horren arduraduna.

Arestian adierazitako betebehar horrek ez du ezertan galaraziko, hala badagokio, **Karatularen 17. puntuan** erakunde kontratugilearen konturako datu pertsonalen balizko tratamenduaren inguruan berariaz ezartzen dena.

i) Kontratista behartuta egongo da, hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 15. puntuan** adierazten diren baldintzak betetzera.

21. KONTRATU-BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratu-betebeharrak:

a) Kontratuaren betebehar nagusia haren klausuletan, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoari hertsiki loturik betetzea.

b) Karatularen 5. puntuan finkatutako entrega-epea eta gauzatzea betetzea.

c) Karatularen 25. Puntuan finkatzen den berme-epea betetzea.

d) Agiri honen 20. klausulako b) letran jasotakoaren arabera, indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta konbentzio-xedapenak betetzea, baldin eta lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira. Horren harira, kontratuak irauten duen bitartean kontratistak ordaindu beharko dio langileari lan-hitzarmenean ezartzen dena dagokion kategoria profesionalarentzat.

e) Kontratistak kontratuaren arduradun bat izendatzea.

f) Kontratistaren eskaintzan hitzemandako giza baliabideak, bai langile propioak bai azpikontratatutako enpresakoa, eta/edo bitarteko material guztiak kontratua betearazteko atxikitzea.

g) Jarduera egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzea.

h) Hornidura unean-unean aplikatzekoa den indarreko araudi sektorialean xedatutakoari jarraikiz ematea. Ondorio horietarako, bai kontratistak bai kontratistaren langileek ziurtagiri guztiak izango dituzte, une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako betebehar guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, hala badagokio.

i) Behin betiko bermea mantentzea eta berriz jartzea.

j) Kontratua betearazten den bitartean, Agiri honen 25. klausulan kontratistari eskatzen zaizkion berezko estaldurak eta aseguruak kontratatuta edukitzea.

k) Kontratua betearazteko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztien ordaina ematea.

l) Hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 16. puntuan** adierazten diren betebeharrak betetzea.

Karatularen 16. puntuan aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-betebehartzat joko dira SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, hortaz, betebehar horiek ez betetzea kontratua erakunde kontratugilearen borondatez suntsiarazteko kausa izango da.

22. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak AUSAri bermatu beharko dio kontratazio honen xede den horniduraren ekipoen gaineko jabetza intelektualaren edo industrialaren gaineko eskubide nahikoen titular dela, baita horien diseinuari eta funtzionatzeko duten edo erabiltzen duten beste edozein sistema, prozedura edo elementuri (*softwarea* eta *hardwarea* barne) dagozkion eskubideena ere, eta haiek Administrazio Klausula Partikularren Agirian ezarritako baldintzetan hornitu, instalatu eta abian jartzeko ahalmena ematen diotela.

Era berean, kontratistak AUSAri ziurtatu beharko dio modu baketsuan erabiliko dituela horniduraren ekipoak eta horien osagai guztiak, eta AUSAri bermatuko dio behar adina eskubide emango dizkiola haiek Administrazio Klausula Partikularren Agirian ezarritako baldintzetan erabili eta mantendu ahal izateko.
Nolanahi ere, kontratista izango da kontratutik kanpoko hirugarrenek kontratuaren inguruan plantea dezaketen jabetza intelektualari edo industrialari buruzko edozein erreklamazioren erantzulea, kontratazio honen xede den horniduraren ekipoei, haien diseinuari eta funtzionatzeko duten edo erabiltzen duten beste edozein sistema, prozedura edo elementuri (*softwarea* eta *hardwarea* barne) dagokienez, eta AUSAri ordaindu beharko dizkio kontzeptu horiei buruzko erreklamazioetatik sor daitezkeen kalte-galera guztiak.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

Erakunde kontratugileak ezin izango du ezagutarazi lizitatzaileek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jo duten informazioa, non eta besterik ez den xedatzen informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian eta adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLn bildutako xedapenetan. Konfidentzialtasuna, besteak beste, sekretu tekniko edo merkataritzakoetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta bere edukia dela-eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen gainerako edozein informaziotan gorde beharko da, dela lizitazio-prozesu honetan, dela geroko gainerako prozesuetan.

Kontratistak gorde beharko du kontratua betearaztean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio informazio horri, edo, informazio mota dela-eta, halakotzat jo beharrekoa bada.

Konfidentzialtasuna gordetzeko eginbehar hori **Karatularen 19. puntuan** adierazitako epean egongo da indarrean.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratista izango da garatzen dituen lanen eta egindako prestazioen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua betearaztean izandako omisioak, errakuntzak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta erakunde kontratugileari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua betearazteko egin beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztien ordaina ematea.

25. ASEGURUAK

Kontratistak bere kontura kontratatuko ditu, kontratuaren iraunaldi osorako, **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak, bertan finkatutako termino eta baldintzetan.

26. ZIGORRAK

a) Berandutzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoien ondorioz, Agiri honetan eta/edo Karatulan finkatutako epeetako edozein betetzean berandutzen bada, erakunde kontratugileak aukera izango du, nahierara, kontratua suntsiarazteko —Agiri honen 33. klausulan adierazitako baldintzetan— edo hura betearazten jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-galeren ordain guztiez gainera.

Kontratista berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango erakunde kontratugileak aldez aurretik ohartarazpena egitea.

b) Kontratatutako prestazioak akatsez egikaritzearen edo beste edozein kontratu-baldintza ez betetzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoien ondorioz, kontratatutako prestazioak akatsez egikaritzen baditu edo beste edozein kontratu-baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratugileak aukera izango du, nahierara, kontratua suntsiarazteko —Agiri honen 33. klausulan adierazitako baldintzetan— edo hura betearazten jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-galeren ordain guztiez gainera.

Zigorrak ordaintzeko, enpresa kontratistari ordainketa osoa edo partziala egiteko ordaindu beharrekoetatik kenduko zaizkio dagozkien zenbatekoak, edo bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egin ezin denean. Kasu horretan, dagokion erreklamazioa jarriko da eratutako bermea gainditzen duen zenbatekoan.

Dena den, kontratua suntsiarazteko zein betearazten jarraitzeko erabakia hartzen duela ere, erakunde kontratugileak bere kabuz erabaki dezake egokitzat jotzen duen denboran bere bitarteko propioak edo hirugarrenenak erabiliz jarraitzea kontratuarekin. Bi kasuetan, jarraipen horren kostua kontratistari jasanaraziko dio, Klausula honetan aurreikusitako kalte-galeren ordainak eta gainerako ondorioak ezertan galarazi gabe.

27. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluan jasota dauden kontratistaren ondorengoa hautatzeko kasuak alde batera utzita, kontratua subjektiboki alda daiteke kontratu lagapenaren bidez soilik, klausula honetan ezarritako mugen barruan, eta aukera hori berariaz jasota baldin badago **Karatularen 22. puntuan**.
Lagapenak bete egin beharko ditu SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan ezarritako baldintzak; hots:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren hura eman dela ulertu beharko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez gauzatuta izan behar du, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.

c) Lagapen-hartzaileak administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, eskatzekoa zaion kaudimena ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa edo profesionala izan behar ditu; gainera, ez du kontratatzeko inolako debekurik izan behar, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

28. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin itundu ahal izango du prestazioa partzialki egitea, betiere klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Salbuetsi egiten dira, hala badagokio, **Karatularen 23. puntuan** adierazitako prestazioak.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta beranduenez hura egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen aipatuko du, baita azpikontratistaren izena, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak ere, eta behar beste justifikatuko du azken horrek gaitasuna duela hura egikaritzeko, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak eta esperientzia aipatuta, eta egiaztatuta azpikontratista horrek ez duela kontratatzeko debekurik SPKLren 71. artikuluari jarraituta.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia egikaritzen den bitartean informazio horretan gertatzen den aldaketa oro, bai eta azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahalko da, baldin eta beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presako neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Kontratista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango azpikontratistek, eta hark bereganatuko du, beraz, erakunde kontratugilearekiko erantzukizun osoa agiriei eta kontratuaren baldintzei estu-estu lotuta betearazteko kontratua; horren barnean egongo da SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak betetzea, eta, orobat, SPKLren 202. artikuluaren 1. apartatuko azken paragrafoak aipatzen duen betebeharra, datu pertsonalen babesaren arloko Estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende jartzeari buruzkoa.

Erakunde kontratugileak kontratista nagusiak egin dituen azpikontratuen berri izateak ez du eraginik izango kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboan.

Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzeko eta ordainketa horiek egiaztatzeko, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

29. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Gainera, kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du **Karatularen 24. puntuak** berariaz ohartarazten duenean aukera horren inguruan, puntu horretan jasotako termino eta baldintzetan.

Kontratuaren aldaketek ezingo dute berekin ekarri kontratuan jasota ez dauden unitateko prezio berriak ezartzea.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

30. HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazioa osorik eta kontratuko baldintzen arabera eta erakunde kontratugilearen nahierara gauzatu duenean.

Dena den, ekipoak entregatu ondoren eta instalatuta eta zerbitzuan daudela egiaztatu ondoren, eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazten diren gainontzeko lanak eginda daudela egiaztatzen denean, harrera-egintza gauzatu eta dagozkion aktak egingo dira. Une horretan, erakunde kontratugileak erabakiko du haiek hartzeko moduko egoeran dauden ala ez, eta ezarritako preskripzioekin bat datozen. Hala badagokio, jarraibide zehatzak emango zaizkio kontratistari, hura hartzean ikusi diren akatsak zuzen ditzan edo itundutakoaren araberako beste hornidura bat egin dezan.

Baldin eta kontratistak hornidurak edo lanak ez baditu hitzartutako prestazioaren arabera egin, eta akatsak edo hutsegiteak kontratistari egotzi ahal bazaizkio, erakunde kontratugileak ezetsi egin ditzake haiek, eta ez du izango haiek ordaintzeko betebeharrik, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Horrek ez du ezertan galaraziko 26. klausulan aurreikusitakoa. Izan ere, erakunde kontratugileak dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita kalte-galeren ordaina ere, baldin eta berandutzen bada, kontratutako prestazioak akatsez egikaritzen badira eta/edo kontratuko-baldintzetako edozein betetzen ez bada.

Berme-epea **Karatularen 25. puntua**n adierazten da.

Adierazitako berme-epean ziurtatzen bada hornitutako ondasunetan hutsik edo akatsik dagoela, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari eskatzeko gaizki daudenak aldatzeko edo, nahikoa izango balitz, horiek konpontzeko.

Berme-epea indarrean dagoen bitartean kontratazio-organoaren iritziz hornitutako ondasunak dagokien xederako egokiak ez badira —ondasunetan antzeman eta kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz—, eta adierazitako xederako ondasunak aldatu edo konpontzea nahikoa ez dela izango uste badu, honako hau egin dezake: aipatutako epea amaitu aurretik, ondasunak atzera bota eta kontratistaren esku utzi; kasu horretan ordaintzeko betebeharretik salbuetsia

geratuko da edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Klausula honetan aipatutako eragozpenik zein salaketarik formalizatu gabe amaitzen bazaio erakunde kontratugileari berme-epea, egindako prestazioa dela-eta izan zezakeen erantzukizunetik salbuetsita gelditzuko da kontratista.

Bermearen barruan sartuko dira konponketarako beharrezkoak diren joan-etorriak, piezak, eskulana eta suntsikorrak, baita berme-epean garatzen den ekipoaren softwarearen edozein bertsio berri instalatzea ere.

31. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratugileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLren 208.2 artikuluan jasotako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, artikulu hori berariaz aplikatzekotzat ezartzen da.

32. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua bete delako edo suntsiarazi delako azkenduko da, erabaki hori ondoren araututakoaren arabera hartuta.
Kontratua erakunde kontratugilearen borondatez suntsiarazteko kausak izango dira:

a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.

b) Kontratista entrega-epea betetzen berandutzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Funtsezko gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horiek halakotzat kalifikatu badira.

e) Prestazioa hasieran itundutako baldintzetan egiterik ez izatea, kontratua Agiri honetan aurreikusitakoaren arabera aldatu ezin bada.

f) Kontratistak kontratuan lan egiten ari diren langileei soldatak ez ordaintzea kontratua egikaritzen ari den bitartean, edo langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea kontratua egikaritzen ari den bitartean.

g) Oro har, kontratu-betebeharretako edozein ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Era berean, kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLren 306. artikuluan ezarritakoak. Ondorio horietarako, artikulu hori berariaz aplikatzekotzat jotzen da:

a) Hornidura hasi baino lehen atzera egitea edo horniduraren hasiera etenda uztea erakunde kontratugileari egotz dakiokeen arrazoi batengatik lau hilabetetik gorako epe baterako, kontratuan entregarako adierazitako egunetik aurrera.

b) Horniduran atzera egitea behin hornidura ematen hasita, edo hornidura zortzi hilabete baino gehiagoz etetea erakunde kontratugilearen erabakiz.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako kausarik badago, suntsiaraztea automatikoki gertatuko da, eta nahikoa izango da erakunde kontratugileak hartutako erabakia kontratistari modu fede-emailean jakinaraztea.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak berehala entregatu beharko dizkio erakunde kontratugileari, eta haren eskueran jarri, kontratatutako prestazioak gauzatzeko ordu arte egin dituen dokumentu guztiak, eta kontratuaren ondorioz sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, erakunde kontratugileak kontratistari entregatu eta erabilitako dokumentuekin batera. Horiek guztiak erakunde kontratugilearenak izango dira aurrerantzean.

Hori guztia, ondoren xedatutakoaren arabera, gerora bidezkoa izan litekeen kontratuaren likidazio ekonomikoa ezertan galarazi gabe.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoien edo legez bidezkoak izan daitezkeen beste arrazoi batzuen ondorioz suntsiaraztetik erator litezkeen erantzukizun ekonomikoak kontratua eraginkortasunez suntsiarazi ondoren likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratugileak hura betearazten jarraitzea.

Kontratua suntsiarazten den kasu guztietan, kontratistak eskubidea izango du, lehen batean, benetan egin diren onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoiren ondorioz suntsiarazten bada, erakunde kontratugilearen alde sortuko da **Karatularen 26. puntuan** aurreikusitako zenbatekoa, kasuan-kasuan dagozkion kalte-galeren edozein ordainez gain. Bi zenbatekoak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Zehazki kontratua honako kasu hauetakoren baten ondorioz suntsiarazten denean: (i) SPKLren 306. artikuluko a) letran ezarritakoa —kontratistak kalte-ordain hau jasotzeko eskubidea izango du soilik, kontzeptu guztiengatik: kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3, BEZik gabe—; (ii) SPKLren 306. artikuluko b) letran ezarritakoa —kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 6 jasotzeko, BEZik gabe, egin ez diren hornidurengatik, mozkin industrial gisa—. Egin gabeko horniduratzat hauek hartuko dira: jatorrizko kontratuan jaso zirenen eta onetsitako aldaketetan jaso direnen eta atzera egitea edo etetea jakinarazten den egunera arte egin direnen arteko aldeari dagozkionak.

Azkenik, erakunde kontratugileak eta kontratistak elkarrekin adostuta suntsiarazi ahal izango dute kontratua. Kasu horretan, alderdien eskubideak haiek baliotasunez hitzartutakora egokituko dira.

33. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da eta, prestaketari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak arautuko dute, eta, adjudikazioari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLn horri buruz ezarritako arauek (dena den, kontratu hau kontratazio publikoaren arloan Europar Batasuneko zenbait zuzentarau Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzeko presako neurriei buruzko otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren esparrutik kanpo dago, eta inolaz ere ez dira aplikatzekoak izango SPKLn soilik erregulazio harmonizatuko kontratuetarako ezartzen diren arauak, zortzigarren xedapen gehigarriko 2. puntuan ezarritakoaren arabera).

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauek zuzenduko dute kontratua. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango dira SPKLren 319. artikuluan ("Ondoreak eta azkentzea") ezarritako arauak.

Gainera, SPKL eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua aplikatzekoak izango dira Agiri honetan testu arauemaile horietara berariaz igortzen den guztian.

Nolanahi ere, datu pertsonalen babesaren arloko Estatuko eta Europar Batasuneko araudiari lotuta egongo da kontratua.

Era berean, Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (Ministro Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Erabakiaren bidez onartua) kokatzen den kontratu bat denez, honako araudi eta dokumentu hauek ere arautuko dute:

Europako araudia:

a) 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena, eta hura garatzen duen gainerako araudia.

b) 2018/1046 Erregelamendua (EB, Euratom), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzekoak diren finantza-arauei buruzkoa (EBren Finantza Erregelamendua) (2018ko uztailaren 30eko EBAO, 193. zenbakia).

c) 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2017ko uztailaren 5ekoa, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurka Zuzenbide Penalaren bidez borrokatzeari buruzkoa (2017ko uztailaren 28ko EBAO, 198. zenbakia).

Nazioko araudia:

a) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

b) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeaketa-sistema konfiguratzen duena.

c) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ataletako neurrien mugarri eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko eta neurrion aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

d) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki analizatzeari buruzkoa.

e) TED/919/2023 Agindua, uztailaren 21ekoa, uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuen (Uraren Zikloa Digitalizatzeko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoa) norgehiagoka bidezko dirulaguntzen lehen deialdia (2022) onartzen dituen irailaren 23ko TED/934/2022 Aginduaren oinarri arautzaileak aldatzen dituena, eta dirulaguntzen bigarren deialdia (2023) onartzen duena.

f) TED/934/2022 Agindua, irailaren 23koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta uraren hiri-zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuen (Uraren Zikloa Digitalizatzeko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoa) norgehiagoka bidezko dirulaguntzen lehen deialdia (2022) onartzen dituena.

Kontratazio-organoak aurkeztutako dokumentazioa biltzeko betebeharra du. Hori dela eta, finantzaketari dagozkion egiaztagiriak eta gainerako dokumentazioa 5 urtez gorde beharko ditu, eragiketa egiten denetik aurrera, edo 3 urtez, finantzaketa 60.000 €-tik gorakoa ez bada (Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatzekoak diren

finantza-arauei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) 132. artikulua).

34. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko; azken horien aurkaratzeak oinarri duenean SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, ulertzen bada aldaketa horrek beste adjudikazio baten xede izan behar zuela.

Hala badagokio, errekurtsoa aurkeztuko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da alderdien artean kontratuen ondorioei eta kontratua azkentzeari buruz sortzen diren gatazkak ebazteko eskumena duena. Horretatik salbu daude klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak.

ERANSKINAK

I. eranskina. Abal-eredua
(Behin betiko bermea)

[…] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFKa […] eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) […](e)n dituenak, eta haren izenean […](e)k (ahaldunen izen-abizenak), dokumentu honen behealdean adierazitako ahalordea askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak […] honako honi ematen dio ABALA: […] (abal-hartzailearen izen-abizenak edo izen soziala), […] IFKa, […](r)en aurrean, […] euroko zenbatekoaz, “DIGURBE” proiektuan jasota dagoen Añarbe eta Urumea ibaien arroan uraren zikloa erabat digitalizatzeko xedearekin presan eta bestelako ur-hartuneetan neurtze-ekipoak instalatzeko kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan aurreikusitako eskakizunak betetzen dituela. Abal hau obligaziodun nagusiarekiko solidarioki ematen da, eskusio- eta zatiketa-onurari espresuki uko eginda, eta […](r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da, harik eta […](e)k berori kitatzea edo itzultzea baimentzen duen arte.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

II. eranskina. Adierazpenen notario-aktaren eredua, eskatutako kaudimena egiaztatzeko eta/edo eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa betetzeko, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa duenean.

[Oharra: soilik aurkeztu behar da lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu duenean, baldin eta lizitatzaileak, exijitutako kaudimena eta/edo exijitutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritzeko asmoa badu. ***Hirugarren erakundeak osatu behar du****]*

[…] jaunak/andreak (NANa: […]), […] enpresaren (IFKa: […]) legezko ordezkari gisa, adierazten du luze-zabal osoan ezagutzen dituela "DIGURBE" proiektuan jasota dagoen Añarbe eta Urumea ibaien arroan uraren zikloa erabat digitalizatzeko xedearekin presan eta bestelako ur-hartuneetan neurtze-ekipoak instalatzeko kontratazioaren lizitazioaren baldintzak, lizitazio horretan parte hartuko baitu […] (enpresa lizitatzailearen izena) lizitatzaileak; eta adierazten du kontratua betearazteko behar diren bitartekoak lizitatzaile horren eskueran jartzeko borondate ezeztaezina duela, lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen bada, berariaz onartuta Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa, eta […] erakundeak berariaz eman beharko du haiek ordezteko edo aldatzeko baimena.

Idazki hau Aguas del Añarbe - Añarbeko Urak SAri aurkezteak berekin ekarriko du konpromiso hori onartzea, baldin eta lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen bada.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

III. eranskina. Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB).

[Oharra: kontratatzailearen profilean EKABaren eredua eskuratu ahal izango da, bai pdf formatuan bai xml fitxategian.]

IV. eranskina. Giza baliabide eta/edo bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa

[…] jaunak/andreak (helbidea: […] eta NANa: […]), bere izenean edo […] ordezkatuz (helbidea: […] eta IFKa: […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, “DIGURBE” proiektuan jasota dagoen Añarbe eta Urumea ibaien arroan uraren zikloa erabat digitalizatzeko xedearekin presan eta bestelako ur-hartuneetan neurtze-ekipoak instalatzeko lizitazioaren berri izanik, honen bidez

ADIERAZTEN DU:

Konpromisoa hartzen duela, kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, kontratazioa arautzen duen Karatularen 10. puntuan exijitutako gutxieneko giza baliabideak eta/edo bitarteko materialak kontratua betearazteari atxikitzeko.

Eta hala jasota gera dadin, dagozkion ondorioetarako, giza baliabideak atxikitzeko konpromiso hau jaulkitzen du, […](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

V. eranskina. Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaunak/andreak (helbidea: […] eta NANa: […]), bere izenean edo […] ordezkatuz (helbidea: […] eta IFKa: […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, “DIGURBE” proiektuan jasota dagoen Añarbe eta Urumea ibaien arroan uraren zikloa erabat digitalizatzeko xedearekin presan eta bestelako ur-hartuneetan neurtze-ekipoak instalatzeko lizitazioaren berri izanik, honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehena.- Konpromisoa hartzen duela, “DIGURBE” proiektuan jasota dagoen Añarbe eta Urumea ibaien arroan uraren zikloa erabat digitalizatzeko xedearekin presan eta bestelako ur-hartuneetan neurtze-ekipoak instalatzeko kontratazioa arautzen duten Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta Preskripzio Teknikoen Agirian xedatutakoari jarraikiz.

Bigarrena.- Konpromisoa hartzen duela, XX. loteko jarduketak egitea honako baldintza hauetan:

- Eskaintzen den prezioa: **…… euro (BEZa barne)**, honela banakatuta:

    - …… euro (BEZik gabeko prezioa).
    - …… euro (BEZa).

Hirugarrena.- Ezagutzen duela kontratua zuzentzen duen kontratu-dokumentazioa, eta oso-osorik eta espresuki bere gain hartu eta onartzen duela.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

VI. eranskina. Erantzukizunpeko aitorpenaren eredua.

[…] jaunak/andreak (helbidea: […] eta NANa: […]), bere izenean edo […] ordezkatuz (helbidea: […] eta IFKa: […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, “DIGURBE” proiektuan jasota dagoen Añarbe eta Urumea ibaien arroan uraren zikloa erabat digitalizatzeko xedearekin presan eta bestelako ur-hartuneetan neurtze-ekipoak instalatzeko lizitazioaren berri izanik, honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehena.- Eskaintza hau aurkezten duen egunean ez duela kontratatzeko inongo debekurik, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) 71. artikuluan ezarritakorik.

Bigarrena.- Espresuki onartzen duela erakunde kontratugileak gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, adjudikazio- eta egikaritze-prozeduran (adjudikaziodun suertatuz gero) sortzen diren datu guztiei, harik eta haiek amaitzen diren arte.

Hirugarrena.- Espresuki baimentzen duela eta behar diren eskubideak eta sarbideak ematen dituela, Europako Batzordeak, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta agintaritza nazional eskudunek dagozkien eskumenak egikari ditzaten bermatzeko, eta, bereziki eta espresuki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan aurreikusitako baimena.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]